



Bergarako  
Udala

BEDELKAR  
Bergarako Dendari eta Ostalarien Elkartea  
N.I.F: G-20477329  
20570 BERGARA  
TFNO: 616 727 592



*[Handwritten signature]*

## LANKIDETZA-HITZARMENA

### BERGARAKO UDALAREN ETA BEDELKAR ELKARTEAREN ARTEKOA

Bergaran, 2025eko maiatzaren 20an

#### BILDURIK

**Alde batetik**, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udaleko Alkatea, Bergarako Udalaren izenean; eta M<sup>a</sup> Concepcion Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin. Azken honek, halaber, ekintza hau egiaztatuko du.

**Bestetik**, Jone Albeniz Pedrejon, BEDELKAR elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean.

Jone Albeniz Pedrejon andreak zinpean alkatearen aurrean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarteak ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku-kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta.

Beraz, honako hau

#### ADIERAZTEN DUTE

1.- Bergarako Udalak 2025eko maiatzaren 19ko dekretu baten bitartez erabaki zuela BEDELKAR elkarteari udal aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izenduna ematea 2025ean zehar herrian merkataritzako jarduera bultzatu eta udalerrira erakargarri, dinamiko eta atsegin egiteko asmoz aurkeztu duen ekintzen programa aurrera eramateko, "Bergara Bizi" ekimenaren barne, eta baita dirulaguntza hori bideratu eta onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak zehazten dituen hitzarmena onartzea ere.

2.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 22.2 artikuluan ezartzen duela zuzenean eman ahalko direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, diru-laguntza horien hitzarmenetan eta araudi erregulatzailan jasotako baldintzen arabera, eta 28 artikuluan ezartzen duela hitzarmenak ohiko tresna izango direla dirulaguntza horiek bideratzeko.

Halaber, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduak 66 artikuluan aurreikusten duela horrelako kasuetan emakidaren egintzak edo hitzarmenak emakidaren oinarri-arautzaile-izaera izango duela Dirulaguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioetarako, eta, berorren edukia zehazten duela.



Hala, bada, adierazitako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute:

## HITZARTZEN DUTE

### Lehenengoa: Helburua

Hitzarmen honen helburua da Bergarako Udalaren eta Bedelkar elkartearen arteko "lankidetz" arautzea, Bergaran merkataritzako jarduera bultzatu eta Bergarako udalerrria erakargarri, dinamiko eta atsegin egiteko asmoz herrian aurrera eramango diren "Bergara Bizi" ekimenaren barne aurtengo ekintza bereziak finantzatzeko Udalak elkarte horri eman dion 15.000 euroko diru-laguntza izendunari dagokionean.

### Bigarrena: Alde bien betebeharrak

1.- BEDELKAR elkarteak berak aurkeztu eta diruz lagundu den proiektuan deskribatutako ekintzak burutuko ditu 2025ean. Ekintzak hitzarmen honi erantsitako dokumentuan agertzen dira.

Gainera honako konpromisoak ere hartzen ditu:

- a) Diru-laguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.
- b) Diru-laguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.
- c) Diru-laguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organismoek egin ditzaketen egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.
- d) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.
- e) Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarteak Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
- f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- g) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- h) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.







Bergarako  
Udala

BEDELKAR  
2023ko Oktubreko Kuartela  
N.I.F.: G-20477349  
20570 BERGARA  
TFNO: 616 727 592

i) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

j) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea.

k) Jardueren ondorioz beste batzuei eragindako kalteak ordaintzea.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskararen erabileraren inguruan: Diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Antolatzen dituzten jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izatea bultzatuko da, bereziki gazteei bideratuak direnean, eskolako irakaskuntzaren osagarri izan daitezen.

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz:

1.- Bete egin beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua –martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa–.

2.- Udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Beraz, jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da. Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izatea.

3.- Sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatzea egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.

- Adikzioen prebentzioari dagokienez, dirulaguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen 1/2016 Legeak edari alkohol-dunen publizitatea, sustapena, banaketa eta kontsumoa mugatzeko







*[Handwritten signature]*

neurriak betetzea, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa denean. Horrelako neurriak ere hartu beharko dira tabakoaren adikzioa prebenitzeko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hau kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeke behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei: zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri (GSDO): GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

## 2.- Udalaren konpromisoak:

- BEDELKAR elkarteak aurkeztutako proiektua garatu ahal izateko, Udalak honako dirulaguntza emango dio: 15.000 euro.

Diru-laguntzaren 1. zatia (diru-laguntzaren % 60) ordainduko da BEDELKAR elkarteak Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatu ondoren. Horretarako hitzarmen hau sinatzean baimena ematen dio udalari egiaztagiria lortzeko.

Bigarren zatia jasotzeko (diru-laguntzaren % 40), ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu BEDELKAR elkarteak 2026ko ekainaren 30a baino lehen:

- a) Diru-laguntza "ordaintzeko" eskaera-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
- b) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat; bertan, honako hauek jaso behar dira:

- Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan.
- Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean.
- Lortutako helburuen justifikazioa.
- Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.







Bergarako  
Udala

BEDELKAR  
Bergarako Dendaria eta Ostalarion Elkartea  
N.I.F: G-20477329  
20570 BERGARA  
TFNO: 616 727 592

*Jose Alberdi*

c) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala... balego).
- Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia...).
- Fakturatutako gastuaren kontzeptua edo pareko dokumentuan jasotakoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— zenbatekoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— jaulkipen-data.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— ordainketa-data.

d) Diru-sarreraren zerrenda sailkatua.

e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.

e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenez).

f) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio).

g) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Halaber, dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzeko Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Azkenik, baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
  - Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, dirulaguntza proportzio berdinean gutxituko da.



Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

**Hirugarrena.-** Bergarako Udalak BEDELKAR elkarteari emango dion 15.000 euroko diru-laguntza horren barne daude egitaraua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak, besteak beste ondorengoak:

- Elkarateak kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ekitaldietarako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoak diren elementu guztiak, ez baditu udalak bere gain hartu.
- Ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoak diren erantzukizun zibileko polizak.
- Ekitaldiak antolatu eta aurrera eramateak eragindako gastu eta kostu guztiak.
- Sortu daitekeen beste edozein gestio edo gastu.

#### **Laugarrena.- Publizitatea**

BEDELKAR elkarateak ekintzen gainean egindako publizitatean (kartelak, esku-programak...) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batean, eta garbi utzita Bergarako Udala laguntzailea dela.

Kartel horien eredu bat Udaleko Garapen zerbitzura helarazi beharko dute ekitaldiaren aurretik.

#### **Bosgarrena.- Ekintzen zabalkundea**

Hitzarmen honetako bi aldeek beraien harreman-sarea baliatuko dute ekitaldia iragartzeko eta zabaltzeko, gonbidatuak erakartzeko eta komunikabideak deitzeko. Ekintzaren berri emateko, alde biek, data bat adostuko dute eta komunikazioa egiteko era zehaztu ere ekintzaren berri emateko.

#### **Seigarrena.- Kalte-ordainak**

Hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan eragindako kalteen erantzule BEDELKAR elkarteak bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

#### **Zazpigarrena.- Iraupena**

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik kontatzen hasita eta dirulaguntza justifikatzeko jarduera guztiak burutu eta udalak ordainketa egin arte.







Bergarako  
Udala

BEDELKAR

N.I.F: G-20477329

20570 BERGARA

TFNO: 616 727 592

#### **Zortzigarrena: Dirulaguntzak bateratzea**

Udalak emango duen dirulaguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke. Hala ere, dirulaguntzak ezin izango du jardueraren kostua baino altuagoa izan.

#### **Bederatzigarrena: Dirulaguntza kopuruaren aldaketa**

Ezingo da aldaketarik egin diruz lagundutako programan, ez eta bertan aurreikusten den denbora baino gehiago erabili ere, aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu.

Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

#### **Hamargarrena: Dirulaguntza kentzea**

Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, hauetakoren bat gertatuz gero:

- Elkarrekin betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntza beste helburu baterako erabiltzea.

#### **Hamaikagarrena: Bermea**

Ez da beharrezkoa ikusten berme bat eskatzea ez baita arriskurik aurreikusten hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzeko.

#### **Hamabigarrena: Izaera pertsonaleko datuen babesa**

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen dutenek adierazten dute bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituztela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituztela.

Sinatzen dutenek deklaritzen dute hitzarmen hau izenpetzeko eman duten informazioa egiazkoa dela, ez dutela isilean ezer gorde edo aldatu.

Aldi berean, izenpetzen dutenek adierazten dute Bergarako Udalari eman dizkieten Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkietela eta datu horiei tratamendua emateko baietza ematen dutela.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

#### **Hamabigarrena: Hitzarmenean jasotakoa ez betetzea**

Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharrak edozein betekoa ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.



### **Hamahirugarrena: Aurreikusita ez dagoena**

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

### **Hamabosgarrena: Auzigaiak**

Hitzarmen honetatik auzigaiak sortzen badira, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



IDAZKARIA  
M<sup>a</sup> Concepción Ugalde



ALKATEA  
Gorka Artola Lete



BEDELKAR elkarte  
Jone Albeniz Pedrejon